

## **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK**

Egileak: Ane Lopez, Naia Eguia, Sofia Gomez eta Arai Biteri.

Langilearen eta haren bezeroaren harramana egokia izatea oso garrantzitsua dela uste dugu, hortaz, gure ezaugarri nagusietako bat bezero eta familiekiko harreman zuzena izatea da. Honenbestez, bezeroekiko komunikazio kanala zaintzea eta lantzea ezinbestekotzat jotzen dugu.

Esan beharra dago, gure negozio eredu bakoitzak ez duela hantazio berdina izango. Alde batetik, **hozkaiu solidarioa** berriki aipatutako herrietan fisikoki kokatuta egongo da eta bertan ez da arduradun fisikorik izango momentu oro egongo, gauza bera gertatuko da **bidegorriarekin**, baita **bizikletekin** ere. Bizikleten eta hozkailu solidarioen kasuan, gure lokalaren alboan kokatuta egotean, kamara baten bidez, kontrolatuko ditugu. Hori dela eta, bezeroengana gure zerbitzuak **modu automatizatu batean** helduko direla ondorioztatzen dugu. Denon zintzotasunean eta konfiantzan oinarrituz hozkailua irekita utziko dugu denon eskura, baina arazoren bat izanez gero neurri ezberdinak hartuko genituzke.

Ildo beretik jarraituta, proiektua ezagutzera emateko eta gure ideia aurrera atera dadin, hainbat gauza pentsatu ditugu. Batetik, gure ideiarekin zerikusia duten herrietako **beste enpresa batzuekin harremanetan** jarriko gara gure ideia partekatzeko eta zabaltzeko. Hauek, hainbat jatetxe, institutu, denda eta herritarrak izango dira (Funtsezko elkarteetan atalean aipatu ditugunak). Bestalde, herriko kultur etxeetan **hitzaldiak emateko** prest gaude, jendeari gure proiektuaren berri emateko; eta amaitzeko, herritik zehar **propaganda** ipintzea erabaki dugu: **Kartelak, iragarkiak ...**

Halaber, marketing lanak egiteko **teknologia** berriak erabiltzea interesgarria dela uste dugu. Ezin dugu ahaztu gaur egun komunikatzeko dugun tresnarik garrantzitsuenak direla eta beraz, guk ere horrelako sareak erabiliko ditugu. Hauen artean; **Instagram (@utopia.eus)**, **Facebook (@utopia.eus)** eta interneten sortutako **webgunea (www.utopia.eus)** erabiliko genituzke. Azkenean, Utopia negozio ideia jendeari ailegatzea da gure nahia.

Webgunea nahi izanez gero erabiliko da, bada honetan hainbat informazio aditzera emango da. Horretan, bizikletak eta takilak alokatzeko, erabiltzeko edo kokatzeko argibide guztiak azaleratuko ditugu. Zerbait ez bada ondo ulertzen, bezeroak gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute, gmail edota telefono bidez.

Bestetik, gure enpresaren zerbitzu batzuen barruan, hala nola, hozkailu solidarioan ez da produktuen salmenta sartzen, izan ere, hozkailu solidarioa dohainik erabili dezakelako bezeroak eta bertako produktuak dohainik gozatzeko aukera izango dute. Hortaz, gure **eskaintza zabala, presentziala eta unekoa** izango dela ondorioztatzen dugu. Takilen eta bizikleten auzian aldiz, gure produktuak/zerbitzuak alokatuz eskuratu ahalko dituzte beraien nahi eta beharrianak asetzera.

Aldi berean, beste elkarte batzuekin aliantzak egitea ere interesgarritzat jotzen dugu (aurreko ataletan adierazi dugun bezala). Baliteke zenbait momentutan gure zerbitzua zeharka talde edo erakunde hauen bitartez zabaltzea -, beti ere gu presente izanik eta zuzeneko harremana helaraziz. Esate baterako, gure aliatuak jaialdi edo ekitaldiren bat egitekotan, guk gure zerbitzuak eskainiko ditugu, horrela zabalkunde kanpaina egingo baitugu. Adibidez, urtarrilaren 28an, klima aldaketaren aurkako eguna ospatzen denez, udaletxeari proposatuko diogu herrian honen inguruko mugimendua egitea eta haatik gure eskaintzak (bizikletak eta bidegorria) ezagutarazi ahalko ditugu.

Hau guztia kontuan harturik, gure esku ditugun komunikazio kanal guztiez baliatuko gara gure bezeroekiko harremana ahalik eta zuzenena eta konstanteena izateko. Hala ere, proiektuak aurrera egin ahala, kanal bakoitzak duen eraginkortasunaren arabera eta momentuko moda edo ezaugarrien arabera, tresna batzuk edo beste batzuk erabiltzea erabakiko dugu. Horretarako, kanal ezberdinen balorazioak egingo ditugu momentu ezberdinetan, gure artean baita bezeroen laguntzarekin ere..

# UTOPIA.EUS

"ALDATU ZURE ESTILOA, ALDATU ZURE BIZITZA"

GIZARTEAREN ONGIZATEA ETA JASANGARRITASUNA LEHENETSII!

ZER ESKAINTZEN DUGU?

## TAKILEN ALOKAIRUA



Pertsonen erostasuna

## BIZIKLETEN ALOKAIRUA



Bizimodu osasungarria

## HOZKAILU SOLIDARIOA



Janariari ere beste aukera bat ematea

## BIDEGORRIAK



Jasangarritasuna bultzatzea

Badakigu negozio-idea hau aurrera ateratzeko gure hitzak ekintza bihurtu behar ditugula. Horregatik, helburu berri bat jarri diogu gure buruari: **ahalik eta modurik hobereenetan laguntzea: elikagaien xahuketaren eta faltaren aurkako mugimendu bat eraikitzen, klima aldaketaren aurkako neurriak hartzen, bizimodu osasuntsu bat sustatzen, kirolaren erabilera bultzatzen, eta turistei ahalik eta erosotasun egokiena eskainiz.**



611 622 633

UTOPIA.EUS@GMAIL.COM